

# FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Baliabideak funtsezkoak dira enpresa aurrera eramateko, gure kasuan giza baliabide aktibo nagusienak imaginazioa edo sormena (gelaren, gimnasioaren...diseinuak sortzeko), informatikari buruzko ezagutzak eta merkataritzarako trebezia (besteei gure proiektuaren berri emateko) izango dira.

Lehenik eta behin, baliabide fisikoak bezeroei zerbitzuak eskeintzeko izango dira (hoteleko zerbitzuak). Honez gain, hotela berritzeko erabili ditugun materialak eta gure proiektuaren berri emateko erabiliko ditugun altzairuak... ere sartuko dira baliabide fisikotan. Altzairuak Etxabe dendan egongo dira, izan ere, hortik erosi baititugu altzariak.

Bestalde, finantza baliabideak gure aurrezkiak izango dira. Hasierako irabaziak ez dira handiak izango eta ez ditugu etekinak edukiko, hasieran jende gutxi joango delako. Kapital txikiarekin hasio garenenez, ingurukoen (familia, lagunak...) laguntzaz ere baliatuko gara eta mailegu bat eskatuko dugu hasiera batean, gure enpresa aurrera eraman ahal izateko. Dirua galduko dugun arren, geroago dirua irabazten hasiko garenez, konpentsatuta ikusiko gara behin dena ondo antolatuta dugula.

Baliabide intelektualei erreparatuz, denboraren poderioz sortzen eta garatzen joango dira. Gure produktuak patenteak eta egile-eskubideak edukiko ditu hasiera batetik, inork gure ideia kopia ez dezan.